



REGLAMENTO 2027

1 > ANTOLAKUNTZA

Donostiako Maratoi Erdia eta 10K Lasterketa S.D. Sportmagic-ek antolatzen ditu, Streetmarketing Event Company-ren ekoizpenarekin eta Deportes Apalateguik sustatuta.

2 > DATA ETA ORDUA

2027ko apirilaren 4an, igandea, Donostiako Maratoi Erdiaren XXVI. edizioa egingo da. Bi distantzietako irteera 09:30ean izango da.

3 > DISTANTZIAK

Maratoi Erdiaren ibilbide homologatuak 2 itzuli ditu, guztira 21,097 km-ko distantziarekin.

10K Lasterketaren ibilbideak zirkuituari itzuli bat emango dio, guztira 10 km-ko distantziarekin.

4 > PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

21K MARATOI ERDIA edozein nazionalitatetako atleta federatuentzat zein federatu gabeentzat dago zabalik, baldin eta lasterketa egunean 18 urte beteta badituzte.

10K LASTERKETA ere edozein nazionalitatetako atleta federatuentzat zein federatu gabeentzat dago zabalik, baldin eta probaren egunean 16 urte beteta badituzte. 16 eta 17 urteko parte-hartzaileek gurasoen baimenari dagozkion bi eremu bete beharko dituzte izen-emate formularioan.

DEBEKATUTA DAGO ROLLERREKIN, PATINEKIN, GURPIL-AULKIEKIN, NORDIC WALKING EGINEZ, MASKOTEKIN EDO ATLETISMOAZ BESTE DIZIPLINA BATZUETAN PARTE HARTZEA.

Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei probaren aurretik azterketa medikoa egitea gomendatzen die, eta parte-hartzaile bakoitzak kirol-jardueratik erator daitekeen arriskua bere gain hartzen du.

Era berean, atletak adierazten du proba egiteko egoera fisiko egokian dagoela eta bere erantzukizunpean parte hartzen duela.

5 > IZEN-EMATEA

Lasterketan izena ematea pertsonala da eta araudi hau onartzea dakar. Parte-hartzaile guztiek araudi honetako artikulua bakoitza onartzen dute eta, zintzotasunez, irteera-unea baino lehen ez aurreratzeko eta distantzia osoa helmuga-lerroa zeharkatu aurretik osatzeko konpromisoa hartzen dute.

Izen-emate guztiak ekitaldiaren webgune ofizialean egingo dira: www.mediadonosti.com

ONLINE IZEN-EMATEAK EGITEKO EPEA MARTXOAREN 15EAN AMAITUKO DA.

Online izen-ematearen prezioak hauek dira:

Behin parte-hartzaileak izen-ematea eginda, Donostiako Maratoi Erdian izena eman izanaren berrespen-mezu elektronikoa jasoko du, IZEN-EMATEAREN EGIAZTAGIRIA erantsita.

Horrez gain, webgune ofizialeko IZEN-EMATEA EGIAZTATU ataletik, izen-ematearen egiaztagiria edozein unetan egiaztatu eta deskargatu ahal izango du.

OSO GARRANTZITSUA DA PARTE-HARTZAILEEK IZEN-EMATEKO DATUAK ZUZENAK DIRELA EGIAZTATZEA, ALDAKETAK EPEAREN BARRUAN ESKATU AHAL IZATEKO.

IZEN-EMATEA ALDATZEKO AZKEN EGUNA MARTXOAREN 1A IZANGO DA.



REGLAMENTO 2027

Izen-ematea egin ondoren, datuak aldatu, izen-ematea beste pertsona bati transferitu eta distantzia aldatu ahal izango dira.

Izen-ematearen aldaketa guztiak zuzenean egin ahal izango dira ekitaldiaren webgunearen bidez. NANA, izen-abizenak aldatzeko, berriz, posta elektronikoko bidezko eskaera bidali beharko da.

Izen-emateak ezin izango dira baliogabetu edo dirurik itzuli inolako arrazoiengatik. Izen-ematea formalizatu ondoren, ez da izen-ematearen zenbatekoa itzuliko inolako arrazoiengatik, proba ezinbestean bertan behera geratzen bada ere. Ezinbesteko kasutzat hartuko dira, besteak beste, dagokion agintaritzak ekitaldia bertan behera uztera behartzen duen egoerak.

6 > DORTSALEN BILKETA

Online izen-ematea egiterakoan, ekitaldiarekin elkarlanean aritzen den kirol-denda bat hautatu beharko da, bertan dortsala eta kamiseta jasotzeko.

Bilketa egunak apirilaren 2a eta 3a izango dira, aukeratutako dendaren ohiko merkataritza-ordutegian.

Jasotzeko, beharrezkoa izango da NANA aurkeztea.

Parte-hartzaileak dortsala pertsonalki jaso ezin badu, beste pertsona batek jaso ahal izango du haren ordeiz, parte-hartzailearen NANA/pasaportea formatu digitalean edo fisikokoan aurkeztuta.

EZ DA DORTSALIK BANATUKO LASTERKETA EGUNEAN.

DENDAK	DONOSTIA DEPORTES APALATEGUI	BILBAO	VITORIA RUNNING FIZ	PAMPLONA ZARIQUIEGUI
ZUMARRAGA DEPORTES APALATEGUI	IRUN DEPORTES GONZALEZ	SANTANDER REGATE SPORT	LOGROÑO DEPORTES FERRER	

7 > LASTERKETA AMAITZEKO GEHIENENKO DENBORA

Maratoi Erdiaren ibilbidea osatzeko gehienezko denbora 2 ordu eta 45 minutukoa izango da, eta 10K Lasterketarako ordu 1 eta 40 minutukoa.

Denbora hori igaro ondoren, ibilbidea amaitu ez duten parte-hartzaileek ibilbidetik atera beharko dute.

Maratoi Erdiko parte-hartzaile guztiek lehen itzulian (10,5 km-an) Helmugako Arkutik ordu 1 eta 30 minututik gorako denboran igarotzen badira, deskalifikatu egingo dira eta ibilbidetik atera beharko dute.

8 > IRTEERAKO KAXOIAK

Izen-ematea egiterakoan, parte-hartzaileak helmugara iristeko aurreikusitako denborari dagokion KAJOIA hautatu beharko du.

Hauek dira bi distantzietarako dauden 5 irteera-kajoia:



REGLAMENTO 2027

IRTEERAKO KAXOIA

1
2
3
4
5

10K LASTERKETA – AURREIKUSITAKO DENBORA

45 MINUTUTIK BEHERA
45–50 minutu
50–55 minutu
55–60 minutu
1 ORDU 5 MINUTUTIK GORA

21K MARATOI ERDIA – AURREIKUSITAKO DENBORA

1 ORDU 35 MINUTUTIK BEHERA
1:35–1:45
1:45–1:55
1:55–2:10
2 ORDU 10 MINUTUTIK GORA

DEBEKATUTA DAGO DORTSALEan ADIERAZITAKOAREKIN BAT EZ DATORREN KAJOI BATEAN SARTZEA. Antolakuntzak eskubidea izango du hautatutakoaz bestelako kajoitik irteten diren atleta guztiak sailkapenetik kentzeko.

9 > KRONOMETRAJEA

Kronometrajea parte-hartzaile guztiek jasoko duten dortsala-txip sistemaren bidez egingo da. Dorsalaren atzealdean gailu txiki bat egongo da, eta ez da inoiz dortsaletik bereizi behar. Ez da beharrezkoa dortsala-txipa itzultzea lasterketa amaitutakoan. Dorsalaren bularrean eramaten ez bada, ez da probako kronometrajea bermatzen. Bi distantzietako dortsal-txipak desberdinak dira; beraz, ezinbestekoa da aukeratutako lasterketa errespetatzea.

DORTSAL-TXIPA BULARREAN, IKUSGAI ETA TOLEstu GABE JARTZEA DERRIGORREZKOA DA. EZIN IZANGO DA LASTERKETAN PARTE HARTU, EZTA LASTERKETAKO ZERBITZUETARA SARTU ERE, DORTSALA IKUSGAI ERAMATEN EZ BADA.

10 > GARAIKURRAK

Bi distantzietako absolutu mailako sailkapen ofizialean lehen postuan geratzen diren hiru gizonek eta hiru emakumek trofeoa jasoko dute.

Maratoi Erdiko honako kategorietako hiru sailkatu onenek ere trofeoa jasoko dute:

Beteranoak	A: 35	eta	44	urte	bitartean
Beteranoak	B: 45	eta	54	urte	bitartean
Beteranoak C:	55 urte edo gehiago				

Sailkapena jaiotze-urtea kontuan hartuta egingo da.

Gehienez 15 laneguneko epea izango da kategoriako hiru sailkatuek trofeoa jasotzeko helbidea baieztatzeko, dagokion trofeoaren irabazle direla jakinarazteko posta elektronikoa jaso ondoren.

BETERANOEN TROFEOAK LASTERKETA EGUNEAN BERTAN, APIRILAREN 4AN, 13:00ETATIK AURRERA BANATUKO DIRA, LASTERKETAKO PODIUMEAN.



REGLAMENTO 2027

11 > KORRIKALARIENTZAKO ZERBITZUAK

OPARIA. Lasterketako parte-hartzaile guztiek runningeko kamiseta tekniko oroigarria jasoko dute, XXV. ediziorako diseinu bereziarekin.

FINISHER DOMINA. Helmugara iristen diren bi distantzietako parte-hartzaile guztiek finisher domina jasoko dute.

ERBIK. Antolakuntzak behar bezala identifikatutako 8 erbi izango ditu Maratoi Erdian, honako denbora hauek lortzeko erritmoa markatuko dutenak: 1:25, 1:30, 1:35, 1:40, 1:45, 1:50, 1:55 eta 2:00.

HORNIDURA-PUNTUAK. Parte-hartzaileek hornidura-puntuak izango dituzte 5 / 7,5 / 10 / 15 / 17,5 kilometroetan, ura eta edari isotoniakoarekin.

HELMUGAKO DASTAKETA. Lasterketa amaitzean, parte-hartzaileek banakako hornidura-poltsa izango dute, likido eta solidoekin, BM SUPERMERCADOS eta COCA COLA enpresek eskainita.

ARROPAZAINDEgia. Doako arropazaindegi-zerbitzua egongo da Diputazioaren eraikinaren behealdean, Gipuzkoa Plazan, 08:30etik 13:00etara.

ALDAGELAK. Gipuzkoa Plazan, arropazaindegiaren ondoan, karpak egongo dira korrikalariak arropa aldatzeko, 08:30etik 13:00etara.

DUTXAK. Parte-hartzaileek dutxa-zerbitzua izango dute Manteo Kiroldegian eta Pio Baroja Kiroldegian, lasterketa amaitu ondoren eta 14:30era arte.

PARTE-HARTZE DIPLOMA. Nahi duten guztiek parte-hartzea egiaztatzen duen diploma doan deskargatu ahal izango dute ekitaldiaren webgunetik.

KOMUNAK. Irteera/helmuga eremuan egongo dira.

12 > DESKALIFIKAZIOAK

HONAKO HAUEK DESKALIFIKAZIO-ARRAZOIA IZANGO DIRA:

- Izen-ematean datu faltsuak ematea.
- Ibilbide osoa ez egitea. 10K Lasterketako atleta batek lehen itzulian Helmugako Arkua gainditu ondoren gelditzen ez bada, deskalifikatu egingo da eta antolakuntzako kideek ibilbidetik aterako dute.
- Zirkuituan kokatutako kontrol-puntuetatik ez igarotzea.
- Dortsala behar bezala ikusgai ez eramatea, edo haren publizitatea aldatzea edo ezkutatzea.
- Beste korrikalari baten izenarekin dagoen dortsalarekin korrika egitea.
- Epaileen, antolakuntzako langileen eta/edo Udaltzaingoaren jarraibideei kasurik ez egitea.

Korrikalari guztiek arreta jarri beharko diete antolakuntzako langileek eta/edo Udaltzaingoak ematen dizkieten jarraibideei.

Horregatik, musikarekin korrika egin nahi bada, entzungailu bakarra erabili ahal izango da.

13 > ASEGURUA ETA ZERBITZU MEDIKOAK

Antolakuntzak erantzukizun zibileko aseguru-poliza izango du.

Gainera, izena emanda dauden parte-hartzaile guztiak eguneko istripu-aseguru baten bidez estalita egongo dira, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Antolakuntzak beharrezko zerbitzu medikoak izango ditu lasterketak irauten duen bitartean korrikalariak arreta emateko.

Antolakuntza ez da parte-hartzaileek proban zehar eragin ditzaketen kalteen erantzule izango, ezta hirugarrenei eragindakoen erantzule ere.

14 > IBILGAILUAK LASTERKETAN

Gutiz debekatuta dago antolakuntzakoak ez diren ibilgailu motordunak edo bizikletak erabiltzea.

Ez dago baimenduta parte-hartzaileak bizikletaz, patinez edo bestelako garraiobideekin laguntzea.



REGLAMENTO 2027

15 > SEGURTASUNA LASTERKETAN

Bide publikoko segurtasuna Donostiako Udaltzaingoaren eta antolakuntzaren ardura izango da. Zerbitzu medikoek edozein parte-hartzaile ibilbidetik ateratzeko baimena izango dute, arrazoi medikoengatik.

16 > DATUEN BABESA

Donostiako Maratoi Erdian izena ematean, parte-hartzaileek baimena ematen dute datuak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren (DBEO/RGPD) arabera tratatzeko. Erregelamendu hori Europar Batasun osoan aplikatzen da, 2016an onartu zen eta 2018ko maiatzaren 25etik dago indarrean.

Horren arabera, S.R.D. Sportmagic eta Apolo74, S.L. enpresek, zuzenean edo hirugarrenen bidez, parte-hartzaileen datu pertsonalak automatikoki tratatu ahal izango dituzte, helburu esklusiboki kirol, sustapen edo merkataritzakoekin.

Era berean, Donostiako Maratoi Erdiaren kirol-, sustapen-, banaketa- eta ustiapen-intereseekin bat etorritik, mundu osoan eta edozein bitartekoren bidez (probaren argazkien erreprodukzioa, sailkapen-zerrenden argitalpena eta abar), eta denbora-mugarik gabe, izena eman duten pertsonak berariaz lagatzen diote antolakuntzari honako hauek erreproduzitzeko eskubidea: Izen-abizenak, Sailkapen orokorrean eta parte-hartzailearen kategorian lortutako postua, Kategoria, Lortutako kirol-marka, Bere irudia, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokor berriaren (DBEO/RGPD 2018) arabera, parte-hartzaileak ahazteko eskubidea du, eta bere datuak ezabatzeko eska dezake, datu horiek beharrezkoak ez badira edo baimena behar bezala kendu badu. Horretarako, eskaera idatziz bidali beharko du A.R.D. Sportmagic, c/ Ángel de la Guarda 15 A - 20.018 Donostia helbidera, edo posta elektronikoz info@mediadonosti.com helbidera.